

Agindua, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatuarena, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen baitzaio Arratzuko Udalari nekazaritzako elikagaien produktu berriak garatzeko.

Foru agindu honen xedea da ARRATZUKO udalari zuzeneko dirulaguntza bat emateko baldintza orokorrak arautzea. Dirulaguntza hori Arratzuko Udalak lantzen duen udalerriko nekazaritzako ekoizpenetan oinarritutako nekazaritza elikagaien produktu berrien garapenerako da.

ARRATZUKO udalak proposamen bat aurkeztu dio Ingurune Naturala Zaintzeko eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari, nekazaritza elikagaien produktu berrien garapenerako zuzeneko dirulaguntza lortzeko. Proposamen hori espedientean jasota dago.

ARRATZUKO udalak dituen helburuetako bat nekazaritza elikagaien produktuen garapena da, bere udalerrian landatzen diren nekazaritzako ekoizpenei salmenta eman ahal izateko eta jakintza horien eta egindako ikerketen emaitzak ezagutzera emateko. Horretarako, ikerketa-proiektu bat egin zuen 2016an, ARRATZUKO nekazaritza-ustategietan lortutako produktuetan oinarritutako hainbat elikagai-elaborazio garatzeko.

Bestalde, ARRATZUKO udalerrian kiwien (*Actinidia chinensis*) merkataritza-sail asko daude, ia 15ha, eta horren ondorioz, urteko ekoizpena handia da.

Orden Foral de la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura por la que se concede una subvención directa al Ayuntamiento de Arratzu para el desarrollo de nuevos productos agroalimentarios.

El objeto de la presente Orden Foral es regular las condiciones generales con base en las cuales se concede al ayuntamiento de ARRATZU una subvención directa para el desarrollo de nuevos productos agroalimentarios basados en las producciones agrícolas del municipio, que lleva a cabo la entidad subvencionada.

El ayuntamiento de ARRATZU ha presentado a este departamento de Medio Natural y Agricultura una propuesta de cara a obtener una subvención directa titulado “Desarrollo de nuevos productos agroalimentarios” y que figura en el expediente.

El ayuntamiento de ARRATZU tiene entre sus objetivos el desarrollo de nuevos productos agroalimentarios que puedan dar salida comercial a las producciones agrarias que se cultivan en su municipio y la divulgación de tales conocimientos y de los resultados de las investigaciones realizadas. Para ello realizó a lo largo del año 2016 un proyecto de investigación en el que se desarrollaron diferentes elaboraciones alimentarias basadas en los productos obtenidos en las explotaciones agrarias de ARRATZU.

Por otro lado, en el municipio de ARRATZU se da una concentración importante de plantaciones comerciales de Kiwi (*Actinidia chinensis*), casi 15 Ha de cultivo, lo que da lugar a unas producciones anuales considerables.





Kiwi ekoizpen horren komertzializazioa laguntzeko asmoz, nekazaritza elikagaien ikerketa-proiektuaren bigarren fase bat egingo da, batez ere kiwian arreta jarritz, lehenago lortutako emaitzak hobetzeko helburuarekin.

Gauzak horrela, behin proposamena aurkeztuta, ARRATZUko Udalak tokiko kiwi produkzioei aterabidea eman nahi die, teknika berriak erabiliz nekazaritzako produktuen eraldaketa eta kontserbaziorako.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren helburuetako bat frutagintzaren sustapena eta esperimentazioa da. Era berean, uste denez, ARRATZUko udalak aurkezturako proiektuaren emaitzak Bizkaiko kiwi-ustategi guztietara hedatu ahalko lirateke.

Horregatik, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak uste du onuragarria dela tokiko nekazaritzako elikagaien produktuen arloan komertzializaziora bideratutako ikerketa ekintzak sustatzea.

Diru-laguntza emateko moduari dagokionez, kontuan hartu behar da Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikulua diru-laguntzak emateko prozedura xedatzen duela. Artikulu horretako bigarren atalean jasotzen da zuzeneko diru-laguntzen arauak.

Zehazki, dirulaguntza emateko modua aipatutako 20.artikuluaren c) atalean jasotako emakida-prozedura da, deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten arrazoiak daudelako; izan ere, ARRATZUko udalak bakarrik egin dezake hegaztien eraztunketa zientifikoko

Con el fin de facilitar la comercialización de estas producciones de kiwi, se va a realizar una segunda fase del proyecto de investigación agroalimentaria para mejorar los resultados obtenidos anteriormente, centrándose en el kiwi.

De esta forma, con la propuesta presentada, el Ayuntamiento de ARRATZU busca dar salida a las producciones de kiwi locales mediante la utilización de técnicas novedosas en la transformación y conservación de productos agroalimentarios.

Entre los objetivos del departamento de Medio Natural y Agricultura, está el fomento y experimentación en el área de la fruticultura y se entiende que los resultados obtenidos con el proyecto presentado por el ayuntamiento de ARRATZU serían extensibles a todas las explotaciones de cultivo de kiwi de Bizkaia.

Por ello, el departamento de Medio Natural y Agricultura, estima conveniente apoyar actividades de experimentación en el área de la comercialización de productos agroalimentarios locales.

En cuanto a la forma de otorgamiento de la subvención, debe tenerse en cuenta que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece en el artículo 20 el procedimiento de concesión de las mismas, recogiendo en el apartado 2 del citado artículo la regulación de las subvenciones directas.

Concretamente, la forma de otorgamiento es el procedimiento de concesión previsto en la letra c) del citado artículo 20, dado que existen razones que justifican la dificultad de su convocatoria pública, ya que únicamente el ayuntamiento de ARRATZU puede





jarduera hori, Euskadin Hegaztien Eratzunketa Bulego bakar bati lotuta.

Ukaezinak dira, halaber, diruz lagundutako jardueren erabilera publikoko eta sozialeko arrazoiak, zehaztutako uren eta ingurumenaren politikaren barruan.

Dirulaguntza emateko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak xedatzen du foru-diputatuari dagokiola 15.000,00 euro baino gehiagokoak ez diren dirulaguntzak eta laguntzak ematea.

Kontuan hartuta emango den dirulaguntzaren zenbatekoa 6.860 eurokoa dela, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatua da dirulaguntza hori emateko eskuduna.

Horregatik guztiagatik, Diru-laguntzen erregelamendua onesten duen eta Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan, 5/2005 Foru Arauan bertan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta aplika daitezkeen gainerako xedapenetan xedatuta dagoenaren arabera, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatua, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. - Zuzeneko dirulaguntza bat ematea eta ordaintzea ARRATZUKO Udalari (IFK:P48012001), gehienez ere 6.860,00 eurokoa, «2025ean

realizar esta segunda fase del proyecto de investigación agroalimentaria propuesto.

Resulta indudable, además, las razones de utilidad pública y social de las actuaciones subvencionadas, que se ha detallado anteriormente.

En lo que respecta a la competencia para la concesión de la subvención, la Disposición Adicional Segunda del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, establece que la concesión de subvenciones y ayudas corresponderá a la Diputada Foral, cuando su cuantía no supere los 15.000,00 euros.

Habida cuenta de que el importe de la subvención a conceder asciende a 6.860 euros, es competente para su concesión la Diputada foral de Medio Natural y Agricultura.

Por todo ello, en virtud de lo dispuesto en el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, en la propia Norma Foral 5/2005, y en la Norma Foral 3/1987, 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y demás disposiciones de aplicación, a propuesta de Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura,

DISPONGO

PRIMERO. - Conceder y abonar una subvención directa por un importe máximo 6.860,00 euros al Ayuntamiento de ARRATZU con CIF P48012001 para la realización del "Proyecto de desarrollo de





nekazaritzako elikagai berrien garapenerako proiektua » egiteko.

nuevos productos agroalimentarios en 2025”

Dirulaguntza hori honako honen kargura ematen da:

Esta subvención se otorga a cargo de:

PROGRAMA	SUBCONCEPTO	PROYECTO	IMPORTE
172103	43200	2010/0003	6.860 €

BIGARRENA.- Aipatutako dirulaguntza Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiko Nekazaritza Zerbitzuak kudeatuko du eta hurrengo baldintzak bete beharko ditu:

SEGUNDO.- Dicha subvención estará gestionada por el Servicio Agrícola de la Dirección General de Agricultura y sometida a los siguientes condicionantes:

1.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA ETA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntza honen xedea da ARRATZUKO Udalak izango dituen gastuak ordaintzea, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari aurkeztutako proposamenean jasotako jarduerekin bat etorritik, 2025 urterako.

Zuzeneko dirulaguntza baten bidez emango da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluko c) atalean xedatutakoarekin bat etorritik; izan ere, deialdi publikoaren zailtasunak justifikatzen dituzten arrazoiak daude eta ARRATZUKO Udala bakarrik izan daiteke entitate onuraduna.

2.- DIRULAGUNTZAREN ONURADUNA

Dirulaguntzaren onuraduna ARRATZUKO Udala da, eta Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko erakunde onuraduntzat jotzeko ezarritako eskakizunak betetzen ditu.

1.- OBJETO DE LA SUBVENCIÓN Y PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN

Es objeto de esta subvención el abonar los gastos en que incurrirá el Ayuntamiento de ARRATZU, de acuerdo con las actividades recogidas en su propuesta presentada al Departamento de Medio Natural y Agricultura en el año 2025.

La forma de otorgamiento es una subvención directa prevista en la letra c) del artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dado que existen razones que justifican la dificultad de su convocatoria pública, por cuanto que únicamente el Ayuntamiento de ARRATZU puede ser la entidad beneficiaria.

2.- BENIFICIARIA DE LA SUBVENCIÓN

El beneficiario de la subvención es el Ayuntamiento de ARRATZU, quien cumple con los requisitos que el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece para tener tal consideración.





3.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK

Maila orokor batean honako ekintza hauen garapena aurreikusten da, onuradunak aurkeztutako proposamenean jasotzen den bezala.

- Lehenengo fase batean hiru erreferentzia espezifikorekin egindako garapenen hobekuntza posibleak aztertzea, analisi zehatz bat egin ahal izateko, haien kalitate, errendimendu eta bideragarritasuna hobetu ditzaketen prozesuak identifikatu eta optimizatzeko.
- Proiektuaren lehengo fasean garatutako proiektuak zabaltzea eta ezagutzera ematea, egindako hobekuntzak, haien ezaugarri bereizgarriak eta lortutako onurak nabarmentzeko.
- Kiwitik eratorritako produktuei balio erantsi handiagoa ematea, hurrengo hobekuntzak aztertuz: formulazioa, ekoizpen prozesua eta ezaugarri sentsozialak
- Kiwiaren industriak sortutako azpiproduktuak murriztea, haien balio handitzea areagotuz eta erabilera posibleak bilatuz garapen berrietarako.
- Kiwitik eratorritako produktu berritzaileak ekoizteko aukera posibleak identifikatzea, kiwiaren merkatuko irismena zabaltzeko.
- Kiwitik eratorritako produktuen bizitza erabilgarria luzatuko duten prozesuak bilatzea, haien kontserbazio eta egonkortasuna optimizatzeko.

3-.ACTUACIONES SUBVENCIONADAS

Se contemplan las siguientes actuaciones de forma genérica que se desarrollarán tal y como se contempla en la propuesta presentada por la beneficiaria:

- Evaluar las posibles mejoras de los desarrollos realizados en una primera fase con tres referencias específicas para llevar a cabo un análisis detallado, con el fin de identificar y optimizar los procesos que permitan mejorar su calidad, rendimiento y viabilidad.
- Difundir y dar a conocer los productos desarrollados en la primera fase del proyecto, destacando las mejoras realizadas, sus características diferenciales y los beneficios obtenidos.
- Aportar mayor valor añadido a los productos desarrollados a partir de kiwi, explorando mejoras en su formulación, proceso de producción y atributos sensoriales.
- Reducir los subproductos generados por la industria del kiwi, promoviendo su revalorización y posibles usos en nuevos desarrollos.
- Identificar nuevas oportunidades para la elaboración de productos innovadores con kiwi ampliando su alcance en el mercado.
- Buscar procesos que permitan aumentar la vida útil de los productos desarrollados a partir de kiwi, optimizando su conservación y estabilidad.





- Kiwia kontsumitzeko era berrien inguruko ikerketak egitea, merkatuaren lehentasun eta tendentzia berrietara egokituz.

Diruz lagundutako jarduerak % 100ean azpikontratatu ahalko dira.

- Investigar nuevas formas de consumo de kiwi, adaptándolo a diferentes preferencias y tendencias del mercado.

Las actividades subvencionadas podrán ser subcontratas al 100%.

4.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira, dirulaguntza honetan ezarritako ondorioetarako, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ebazpen honek ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Aipaturiko gastuak 6.860 eurokoak izango dira hasiera batean, erakundeak espedientean aurkeztutako dokumentazioan jasotzen den bezala. Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketak inola ere ezingo du gainditu 6.860 euroko zenbatekoa.

Ez dira inolaz ere izango diruz lagun daitezkeen gastuak:

- a) Banku-kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.

Diru-laguntzaren pertsona onuradunak egiaz ordaintzen dituenean, zergak diruz lagundu daitezke. Ez dira inola ere diruz lagunduko zeharkako zergak, berreskura edo oreka daitezkeenean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

4- GASTOS SUBVENCIONABLES

Se consideran gastos subvencionables, a los efectos previstos en la presente subvención, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido por la presente resolución. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Los gastos mencionados, ascienden a una cantidad inicial de 6.860 euros, tal y como figura en la documentación aportada por la entidad en el expediente. La financiación de la Diputación Foral de Bizkaia, en ningún caso será superior a 6.860 euros.

En ningún caso serán gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- c) Los gastos de procedimientos judiciales.

Los tributos son gastos subvencionables, cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso, se consideran gastos subvencionables, los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.





Pertsona onuradunak zeharkako kostuak, arrazoiz dagozkion zatian, diru-laguntza jaso duen jarduerari egotziko dizkio, orokorrean onartutako kontabilitatearen printzipio eta arauekin bat eta, nolanahi ere, kostuak jarduera egin den egiazko denboraldiarekin bat datozen neurrian.

Los costes indirectos habrán de imputarse por la persona beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad.

5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA AURREKONTU-GORDAILUA

5.- IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN Y CONSIGNACIÓN PRESUPUESTARIA

Aurreko atalean jaso den bezala, ARRATZUKO Udalak aurkezturiko dirulaguntza-proiektua 6.860 eurokoa da guztira.

Tal y como se ha recogido en el aportado anterior, el proyecto subvencional aportado por el Ayuntamiento de ARRATZU asciende a un total de 6.860 euros.

Dirulaguntzaren zenbatekoa 6.860 eurokoa da gehienez.

El importe de la subvención asciende a un máximo de 6.860 euros.

Dirulaguntza Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024rako Aurrekontu Orokorretan esleitutako aurrekontu-kredituaren kargura ordainduko da.

La subvención se abonará con cargo al crédito presupuestario consignado en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024.

PROGRAMA	AZPIKONTZEPTUA	PROIEKTUA	ZENBATEKOA
172103	43200	2010/0003	6.860 €

ARRATZUKO udalaren kontura izango da diruz lagundutako jarduera guztiz gauzatzeko behar den finantzaketa-aldea ordaintzea; ildo horretan, Dirulaguntzen Araudia onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 FORU DEKRETUAREN 27.2 artikulua aplikatuko da.

Queda de cuenta del ayuntamiento de ARRATZU la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, aplicándose el artículo 27.2 del DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones en toda su extensión.

6.- ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA

6.- RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE

Foru Dekretu honen xede den dirulaguntza honako hauen arabera

La subvención objeto de este Decreto Foral se otorga en virtud de los artículos 9





emango da: Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9. artikulua eta 20.2.c) artikulua, 26. artikuluari lotuta, eta Foru Arau hori garatzen duen Dirulaguntzen Araudia onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12. eta 50. artikulua.

Dirulaguntzaren emakida arautzen duen araubide juridikoa honako hau izango da:

- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra araupetu duena.
- 16/2018 Bizkaiko Foru Dekretua, otsailaren 27koa, Dirulaguntzen Araudia aldatzen duena. Foru arau horrek Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra (Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartua) ezartzeaz gain, gizarte, ingurumen eta bestelako politika publikoei dagozkien klausulak Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen kontratazio prozeduretan txertatzeko gida onartzen du.
- Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua; haren bidez, Dirulaguntzen Araubidea onartzen da, diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua garatzeko.
- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa; horren bidez Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bat egin garatzen duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei

y 20.2.c), en relación con el artículo 26, todos de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y los artículos 12 y 50 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la mencionada Norma Foral.

El régimen jurídico que regula la concesión de la subvención será:

- Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.
- El Decreto Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, que modifica el Reglamento de Subvenciones, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones.
- Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo





buruzko Araudi Orokorra onesten da.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen araudia.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua; Administrazio Elektronikoen esparruan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua.
- Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta subsidiarioki edo ordezkoko gisa aplikatzekoa den gainerako araudia.
- Foru dekretu hau eta Administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

7.- HELBURU BERA DUTEN BESTE DIRU-LAGUNTZA, LAGUNTZA EDO BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza bateragarria ez da izango helburu bera duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, diru-

del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su normativa de desarrollo.
- La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público de las Administraciones Públicas.
- El Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica; el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.
- La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.
- El presente Decreto Foral y las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

7.- COMPATIBILIDAD O INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS O RECURSOS PARA LA MISMA FINALIDAD

La subvención no será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin





laguntza edo laguntza horiei buruzko arauak ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

Hala eta guztiz ere, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak, isolatua edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitartekoekin elkartua, ezingo du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

Horren haritik, onuradunak idatziz jakinarazi beharko dio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari dekretu honen bitartez diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko beste edozein laguntza edo diru-laguntza eskuratu izana. Proiektuaren kostuaren aldean, finantzaketa gehiegi egonez gero, soberakina integratu beharko da, dagozkion atzerapen-interesekin batera.

perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

No obstante, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

En este sentido, la beneficiaria deberá comunicar por escrito al Departamento de Medio Natural y Agricultura la concesión de cualquier subvención o ayuda para la financiación de las actuaciones subvencionadas mediante el presente Decreto. En el caso de que se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto, deberá reintegrarse el exceso junto con los intereses de demora correspondientes.

8.- BURUTZEKO EPEA

Dirulaguntzaren xede den jarduera 2024ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaituko da.

ARRATZUKO udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu ahal izango dio dirulaguntza, jarduera egiteko epealdia amaitu baino lehen, emate-ebazpena aldatzeko eta, ondorioz, finkatutako epealdiak luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Horretarako baimena emango da aldaketaren eragilea ezusteko inguruabarra izanez gero edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoa izanez gero, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak kaltetzen ez badira.

Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, interesdunari entzun eta funtsak aplikatu aurretik, kasu honetan: laguntza

8.- PLAZO DE EJECUCIÓN

La actividad objeto de la subvención se considera iniciada a partir del 1 de enero de 2025 y finalizará con anterioridad al 31 de diciembre de 2025.

El ayuntamiento de ARRATZU podrá solicitar de la Diputación Foral de Bizkaia, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

La Diputación Foral de Bizkaia podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia del interesado y antes de la aplicación de los





emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.

9.- DIRULAGUNTZA ORDAINITZEA

Dirulaguntza osorik ordainduko da Foru Agindu hau onetsi ondoren, bi hilabeteko epean, gehienez ere, eta ez zaio bermerik exijituko erakunde onuradunari.

9.- PAGO DE LA SUBVENCIÓN

El pago total de la subvención se realizará tras la aprobación de la presente Orden Foral, en el plazo máximo de dos meses, no exigiéndose garantía alguna a la entidad beneficiaria.

10.- JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

ARRATZUKO udalaren kontura izango da diruz lagundutako jarduerak guztiz gauzatzeko behar den finantzaketa-aldea ordaintzea; ildo horretan, Dirulaguntzen Araudia onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 FORU DEKRETUAREN 27.2 artikulua aplikatuko da.

a) Dirulaguntzaren xede diren jardueretan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen jarduketamemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak ezagutzera ematen dituena.

Memoria horrek, nahitaez, atal bat izan beharko du genero-ikuspegiarekin egindako jarduketetan lortutako emaitzei buruz, sexuaren arabera bereizitako datu estatistikoak aintzat hartuta.

b) Egindako jardueraren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, diruz lagundutako jarduerari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria jasoko duena. Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria osatzen duten partida guztiek martxoaren 23ko 34/2010 Foru

10.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN PERCIBIDA

